ASTEKARIA | 2013ko irailaren 6an | XVII. urtea | USURBIL | 541. zenbakia | www.noaua.com TOKIKOM

# noaua



**Bizkarreko plaza eraberritua izango da**

**Masustari gorazarre egingo zaio irailaren 13an**

**Larunbat honetan, Gazte Eguna**

# Zubietari esker onez

## Larunbat honetarako hainbat ekitaldi iragarri dira


KAMDEN
hizkuntzak
English courses
·Talde txikiak
·Gazte eta helduentzako ikastaroak
·Cambridgeko azterketak prestatzeko
Matrikulazio epea zabalik!!
irailaren 5etik 13ra
12:00-13:00 eta 18:00-20:00
irailaren 17tik aurrera
18:00-20:00
www.kamdenhizkuntzak.com
Zubiaurrenea 6 • Tlf 943 371 402


Denboraldi berria!
Marije
Arropa denda
Etxebeste,3 - 943 36 11 06 - USURBIL


MIKEL AKADEMIA
Talde murriztuak eta pertsonalizatuak
·Lehen eta Bigarren hezkuntza
·Batxilergoa ·Selektibitatea
·Lanbide heziketa
·Ikasketa teknikoak
·Hizkuntzak
629944690
Galtzaragaña 1, behea USURBIL


OGI BERRI
ARTISAU OKINAK
ORDUTEGI BERRIA:
egunero 06:00tik 21:00ra
asteburutan ere
gaueko 21:00ak arte!
PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)

## Albistea iruditan

# Usadio zaharrak, bizirik

Bizirik jarraitzen dute garai bateko ohiturek, irudiko koadrila ikusi besterik ez dago. Duela hilabete ospaturiko Urdaiagako festetan, oilasko biltzera ateratako taldea duzue. Ohi bezala, abuztuaren 1ean egunak argitu aurretik ekin zioten, auzoa, Txokoalde eta Aginaga lotu zituen ibilbideari. Etxez etxeko errondan, hainbat geraleku egin zituzten. Auzotarren aurrean trikitixa doinuek alaiturik dantza gogotik egin zuten. Ibilbidea, eguerdi partean amaitu zuten Santueneko Aialde Berri sagardotegikoek prestatu zuten bazkariaren bueltan.



**Urdaiagako festetako oilasko biltzaileak, Txokoalden atseden hartzen.**

## Laburrean

### Ekhi Ajuria, Batxilergoko ikasketengatik saritua

Batxilergoko ezohiko sariak banatu dituzte, 2012-2013 ikasturtean heziketa ziklo honetako ikasketak amaitu dituzten Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikasleen artean. Sarituetako bat usurbildarra dugu; Ekhi Ajuria. IES Usandizaga-Peñaflorida-Amara BHI ikastetxean aritu da ikasten azken urteotan. Ikastetxe bereko beste bi ikasle ere saritu dituzte. Guztira 15 ikasle saritu dituzte. Ekhirekin batera, beste hamalau ikasle: hiru arabar, eta beste seina gipuzkoar eta bizkaitar. Zorionak!

### Usurbilgo Gaztetxeak, urtebete egin du

2012ko abuztuaren 25ean Kaxkoan ospatu zen triki poteo baten ostean, Alkartasuna kooperatibak Ugarte ondoan zuen garai bateko eraikinean sartu, eta ordutik, Usurbilgo Gaztetxearen egoitzan bihurtu da gunea. Eskerrak helarazi dituzte gaztetxekoek, sare sozialen bidez. "Eskerrik asko bihotz bihotzez ekimenak antolatzen lagundu eta ekimenetan protagonista izan zareten guztioi! Eta eskerrik asko baita ere astean zehar gaztetxera gerturatu zareten bisitari eta parte hartzaile guztiei!".

### Patxi Segurola etxean nahi dute herritarrek

"Patxi askatu" eta "estradiziorik ez! zioten kartelak eskutan zituztela agerraldi bidez salatu zuten herritarrek iragan uztailaren 18an Mikel Laboa plazan, edozein unetan gauzatu daitekeela Patxi Segurolaren aurkako estradizio eskaera. Ezustekorik ere izan zen agerraldi berean. Patxi Segurolak zuzenean deitu baitzuen konfinatuta jarraitzen duen Autunetik. Herritarrek aske uzteko eskaeren eta txalo artean hartu zuten aginagarra. Patxik jasotako elkartasuna eskertu nahi izan zuen, bizi zuen kezka azaltzearekin batera.

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.com /// www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Ana Aizpurua.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Bea Alda, publizitatea@noaua.com.
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.
**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Aizpea Aizpurua.
**Banaketa:** Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege-Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.
**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala
AIRE, AIRE !!! EUSKARARI
Euskal presoak
Euskal Herrira!
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



**Imanol Ubeda**

# *Ara non datozen Aizpurutik*

Ekaineko azken alean, *Donostia 1813-2013* ekitaldiak izan nituen hizpide txoko honetan. Eta Udarregi bertsolariak 75. urteurrenean (1878) ondu zituen bertsoak ekarri nituen gogora. Larunbat honetan, Zubietako Aizpurua baserria izango da bigarren mendeurreneko protagonista. Eta hara, nik ezagutzen ez nuen bertso-sorta bat ekarriko dute gogora. Lehen mendeurrenean, Jose Elizondok idatzitako bertsoak. Aurrekoan Udarregirenak jaso nituen txoko berean batu nahi nituzke, beraz, Elizondok 1913an idatzitako hauexek.

*Mutu daude guziyen mingañak*
*Arpegiyak zurbillak, biyotzak*
*Minberez eriyak ta bekañak*
*Malkoz gorriturik dauzka lotsak,*
*Nekatuta enekaespañak*
*Serrallatu dituzte itz-otsak;*
*Badirudi guziyen kemenak*
*Bertan izan ditula azkenak.*

*Chinpataren soñualdi latza,*
*Eriotzen antzi-alayuak*
*eta erreturaren kedatza*
*nazirik dijuaz; ichasuak*
*bare-bare darabill bagatza,*
*eta isillik dauzka urruak*
*zerutiko abezti antzian*
*itz gozo bat aditu danian.*

*Ara non dauden gazte ta zarrak*
*Zubietan batzarraturikan;*
*(Orain ere) Donostia, zu sera illezkor*
*Dezulako ainbezte ume jator.*

---------------------

*Ara non datozen Aizpurutik*
*Seme leyal oriek zugana,*
*Lazter errauts bero pilletatik*
*Jasoko dute ama laztana*
*Ta mundu osoak miretsirik*
*Ikusita berbistu zerana,*
*esango du: "Beti onetsiak*
*Izan bitez ume maitatiak"*

*Aintza zuri sorleku kutuna*
*Euskalerri zarreko sarjiña*
*Erluntz-eztiya beziñ leguna*
*Goiz-likurta ainbat atsegiña*
*Igaro zatzu aldi aztuna*
*Palakatu jazo zendun miña;*
*Ona bada Fenix'en antzera*
*Non zatozen berriz pistutzera.*

*Jaunak itchasoaren ertsean*
*Egiñ zindun eder ta liraña*
*Nai zulako Gipuzkoan izan*
*Euskalerriko uri bikaña*
*Ta betiko galdu etaitean,*
*Aztu gabe berea ziñana*
*Esan du: "¡O mintzo egokiya*
*"Bizibedi nere Donostiya"*

**Imanol Ubeda** | Aritz Gorriti | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | Unai Agirre | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Ugaitz Agirre | Nerea Zinkunegi

# Bizkarreko plaza eraberrituko da

Udalak 66.000 euroko laguntza bideratu asmo du lan hauetara. Erabakia edozein kasutan, behin behinekoa da oraindik. Uztailaren 23an burutu zen osoko ohiko bilkuran eman zitzaion hasierako onespena aipatu diru-laguntza banatzeko erabakiari, Bildu, Aralar eta PSE-EEko udal ordezkarien aldeko bozkekin. Hamaikabat abstenitu zen.

Gobernu taldeak udalbatzara eramandako proposamen honek, jada onartuak dauden 2013ko udal aurrekontuetan ere eraginik izan du. 11. kreditu aldaketa proposatzea ekarri baitu. Aldaketa hau behin betikoz onartu zen uztailaren 23ko osoko ohiko bilkuran. Puntu honi zegokion bozketan, emaitza bera errepikatu zen.



**Uztaileko plenoan hartu zen plazaren zoladura berritzeko erabakia.**

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
teilatuak eta fatxadak
943 37 38 79 - 620 80 01 86
Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

ALKORTA
AUTOZERBITZUA
Baserriko haragia
·Frutak ·Barazkiak ·Etxeko produktuak ·Izoztuak
Beheko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

# Zubietatik, Donostia berreraiki zutenen omenez

1813ko abuztuaren 31n suntsitua geratua zen Donostia, Napoleonen Gerren baitan. Handik egun gutxira, irailaren 8an eta 9an, orduko udalbatza Zubietako Aizpurua eraikinean bildu eta hiriburua berreraikitzea erabaki zuen. Bilera hauen 200. urtemuga beteko da irailaren 8an eta 9an. Bezperan, larunbat honetan, omenaldia antolatu dute Zubietako Aizpurua eraikinean bertan.

Garai hartan Donostia berreraikitzea erabaki zutenak omenduko dira, eurek erakutsitako sendotasuna eta ausardia eskertuko dituzte, irailaren 7ko ekitaldiko antolatzaileek asteartean eskaini zuten prentsaurrekoan adierazi zutenez. Haietako askoren senideak espero dira Aizpurua baserrian larunbat honetan; 300 lagunetik gora Donostiako alkatearen esanetan. 200. urtemugako akta berria ere sinatuko dute omenaldi ekitaldian. Mugarria izatea nahi dute larunbateko omenaldia, "hiria elkarlanean eraikitzen jarraitzeko". Herritarrei bertaratzeko gonbita luzatzen diete.



**Donostiako agintariek, Zubietako Herri Batzarreko ordezkariek eta Aizpurua baserrikoek prentsaurrekoa eskaini zuten asteartean Zubietan. Bertan iragarri zituzten larunbateko ekitaldiak.**

## Irailak 7 larunbata, egitaraua

- 9:30 Behemendik antolatutako lore eta landare merkatuaren zabaltzea Zubietan, Udalaren Txistulari Bandak girotuta.
- 10:30 Autobusen irteera Gipuzkoa plazatik Zubietaraino (lehentasuna dute ekitaldi instituzionalera joango direla baieztatu dutenek).
- 11:40 Publikoaren sarrera Aizpurua baserriaren barrutira (Zubieta).
- 12:00 Berregintza historikoko ekitaldi instituzionalaren hasiera, non Zubietako Akten sinatzea antzeztuko den. Ados Teatroak, txalapartak, Easo Abesbatzak, harpa batek eta Udalaren Txistulari Bandak ere parte hartuko dute. Jose Elizondok Mendeurrenerako egindako "Amaren Obiyan" lanaren bertsoak kantatuko dira.
- Sinbolikoki, Ados Teatroa konpainiako kideek antzeztutako Akten sinatzaileek lekukoa pasaraziko diote gaur egungo Donostiako Udalbatzari, duela 200 urte txikitu eta errauts bihurtutako hiriaren berreraikuntza sinbolizatzen duen tokian iragana eta oraina batzen direlarik.
- Alkateak eta Udalbatzak sinbolo oroigarri bana emango diete sinatzaileen ondorengoen familien ordezkariei, bai eta oroitzazko diploma bana Bigarren Mendeurrenaren programa kolektiboan parte hartzen duten pertsona, elkarte, erakunde eta enpresei ere; biak ala biak Iñigo Aristegi artistak eginak dira.
- Bigarren Mendeurrenaren Akta Liburuan sinatu eta taldekako argazki zenbait egingo da bertan.
- Jarraian, pilota partidu bat izango da Zubietako frontoi estali gabean, Udalaren Txistulari Bandak girotuta.





"Aizpurua etxea", Laureano Gordon Montaña

## "Elkarren artean moldatu beharra daukagu"

Alkateak eta Udalbatzak oroigarri bana emango diete Donostia berreraikitzeko aktak sinatu zituzten familien ordezkariei. "Korapiloak argituz" eskultura da oroigarri gisa jasoko dutena, Iñigo Aristegi artistak egin eta egileak berak hala definitua: "komunikazioa da, sentimendutan elkar ulertzea. Urgull eta Igeldo sinbolizatzen dituzten bi pertsona egin ditugu, zerumugari tiraka elkar topaturik; haien arteko nukleoa uhartea da, katramilatutako korapiloak zenbat eta gehiago tira egin, hainbat eta gehiago arroka bihurtzen dena. Sinbolismoa hartu emanean, tira-biraka ibiltzean datza; izan ere, nahasketak argitzearren, gorputza, pertsonak elementu zurrunei moldatuz askatzen baitira korapiloak, soka, harria, burdina. Elkarren artean moldatu beharra daukagu, eta norabide berean lan egin, gure arbasoek Donostia berreraikitzeko egin zuten bezalaxe".




**Oroigarri hau banatuko da larunbatean.**

# Konpromiso etikoa, zabortegidun udalerriak kaltetzearen aurka



Konpromiso etikoa betetzeko, zenbait neurri hartzeko eskatu diote Udalari.

Udalerri honetako hiri hondakinak gaika bildu arren, "Zero Zabor norabidean badago zer hobetua" Usurbil Zero Zabor (UZZ) taldearen esanetan, "guk sortutako hondakinen hainbat tona, beste herrietan dauden zabortegietara bidaltzen baititugu oraindik ere" eta honenbestez, "beste herritar batzuk pairatzen dituzte guk sortutako zabor zati baten ondorioak".

Honen aurrean, arazoa zaborra eta konponbidea, ahalik eta hondakin gutxien sortzea eta sortutakoak ez nahastea dela diote. Udaletxean ekainean aurkeztu zuten mozio bidez, UZZ-tik zabortegiak dituzten udalerrietako biztanleei ahalik eta kalte gutxien eragiteko konpromiso etikoa bere egitea eskatzen zioten Udalari. Zero zabor taldeko kideek udaletxean aurkezturiko testua, uztailaren 23an buruturiko osoko ohiko bilkuran aztertu zuen udalbatzak. Gehiengo osoz onartu zen, Bildu eta Aralarren babesarekin. Aurka bozkatu zuten aldiz, PSE-EE eta Hamaikabat udal taldeetako ordezkariek.

ZERO ZABOR

***"Usurbildarrok zor bat daukagu guk sortu, baina nahi ez dugun zaborra jasotzen duten herrietako biztanleekin"***

Mozioak jasotzen duen konpromiso etikoa betetzeko gainera, zenbait neurri hartzea galdegiten diote UZZ-tik Udalari; ahalik eta hondakin gutxien sortzeko burutu ditzakeen ekintzak aztertzea; emaitza hoberenak lortzen dituen gaikako bilketa sistemak ezartzea, etengabe hobetzen jarraitzearekin batera; eta azkenik, herritarren parte hartzea sustatzea. "Usurbildarrok zor bat daukagu guk sortu, baina nahi ez dugun zaborra jasotzen duten herrietako biztanleekin. Ahalik eta kalterik gutxiena sortzea da zor horri erantzuteko era bakarra. Hori da hain zuzen ere gure konpromiso etikoa", dio UZZ-koen mozioak. Testu honen bidez bestalde, orain arte eginiko kalteen aitortza egiten da.

## "Fiskala berandu dator Gipuzkoako interesak babestera"

Hala diote, Gipuzkoako Errausketaren Aurkako Koordinakundeak, Eguzkik, Gipuzkoa Zero Zaborrek eta Zubietako herritar kaltetuek. Gogoan izan, errauste planta proiektuaren irregulartasunak salatuz, GHK-k aipatu egitasmoko lanak etetea erabaki zuela berri eman zuen iragan uztailaren 12an. Handik gutxira, EAEko fiskal nagusi Juan Kalparsoro, proiektu honen tramitazioan lege hausterik egon ote den, diru baliabideak oker erabili ote diren ikertzen hasi zen. Honen harira, errausketaren aurkako aipaturiko eragile taldeak agerraldia burutu zuen Zubietan, errauste planta eraikitzekoak ziren gunean. "Fiskala berandu dator gipuzkoarron interesak babestera. Non zegoen Carlos Ormazabalek gidaturik eta Denis Itxasoren babesarekin GHK-k 400 milioi euroko angulak afaltzera joan zirenean? ...", zioten aipatu eragileek.

## ZORION MEZUAK

Errauste plantako lanak etetearen harira, nazioartetik hainbat zorion mezu jaso dituztela gaineratu zuten. "Kanada, Argentina, Mexiko, Italia,Salvador, Amerikar Estatu Batuak... denak begira dauzkagu, zorionak eman eta aurrera segi dezagun animatuz", adierazi zuten. Aditu ezagunen babesa ere jaso dute. "Besteak beste, hondakinen kudeaketa egokia bultzatzeagatik ospetsuak diren Paul Connet, Rossano Ercolini eta Joan Marc Simonen zorion mezuak jaso ditugu", gaineratu dute.







# 2020rako, 5.000 tona $CO^2$ gutxiago sortzea

## 58 NEURRI JASOTZEN DITU USURBILGO ENERGIA JASANGARRIRAKO EKINTZA PLANAK

Usurbilgo Energia Jasangarrirako Ekintza Plana izan zuten beste aztergaietako bat udal ordezkariek, uztailaren 23rako deitua zegoen osoko ohiko bilkuran. Udalbatzak aho batez onartu zuen, 5.324 tona $CO^2$ gutxiago isurtzea ahalbidetzea aurreikusten duen egitasmoa. 2020. urterako %20 murriztu nahi da aipatu isurpena, 2011ko azaroaren 29an, eta "Europar Batasunaren energia-politikaren helburuetatik haratago joateko asmoz", udalbatzak aho batez onarturiko Alkateen Itunak jasotzen duen moduan. Usurbilgo egoera zertan den aztertua duen diagnosi dokumentuan oinarritua dago plana.

2007. urtea proposatzen da, 2020ra arte jarraitu beharreko estrategia zehazten hasteko erreferentzia urte modura. Planaren helburua betetzeko, bost ildo estrategikoetan banaturiko 58 neurri jasotzen ditu Usurbilgo Energia Jasangarrirako Ekintza Planak. Lan ildoak honakoak dira: efizientzia energetikoa, energia berriztagarriak, mugikortasuna, hondakinak, ura eta inguru naturala. Isurpen gehienak sortarazten dituztenak izanik, mugikortasun eta energia lan ildoak izango dira Udalaren jomuga nagusiak. Plan honen bidez, "Udal sailean, bizitegietan eta zerbitzuetan" eragin nahi da:

**UDAL SAILA**

Aurreikusitako inbertsioa: 1.348.273 euro.
Isurpen murrizpenen %63 suposatzen du.
Ekintzak: udalaren eraikin eta instalakuntzen efizientzia energetikoa areagotu, ur aurrezpenak, hondakinen kudeaketa aldaketak...

**BIZITEGIAK**

Isurpen murrizpenen %37 suposatzen du.
Ekintzak: etxebizitzetako efizientzia energetikoa areagotu, mugikortasun iraunkorreko ohiturak ezarri, garraio publikoen sustapena, ibilgailu eraginkorren eskuratzea sustatzea (eta euren erabilera minimotara eramatea)...



**Plan honen bidez, udal sailean, bizitegietan eta zerbitzuetan eragin nahi da.**

**UCINEKO KEAK ETA USAINAK**

***"Irailaren 11n, Eusko Jaurlaritzako eta Usurbilgo Udaleko ordezkaritza bat biltzekoa da, Ucineko ingurumen gatazka jorratzeko"***

### Ucineko ingurumen gatazkari loturiko erakunde arteko bilera

Irailaren 11rako dago iragarria. Eusko Jaurlaritzako eta Usurbilgo Udaleko ordezkaritza bat biltzekoa da, Ucineko ingurumen gatazka jorratzeko. Zehazkiago esanda, Ucinek duen ingurumen baimen bateratua izango dute hizpide nagusi, gai honi lotuta eta Santixabelen aurretik, herritarrekin burutu zuen batzarrean Udaletik azaldu zutenez. Orduan eta lehendik ere adierazi bezala, inork usain txarrik sumatu edo kea ikusiko balu, udaltzaingora deitzeko gonbita luzatzen dute. Honatx telefono zenbakia: 943 361 112.

### Iazko kontu orokorra, behin betiko onartua

2012ko ekitaldiko Kontu Orokorra ere behin betiko onartu zuen udalbatzak gehiengoz, uztailaren 23an burutu zen osoko ohiko bilkuran. Bildu eta Aralarren aldeko bozkekin hain zuzen. PSE-EE eta Hamaikabatek abstentziora jo zuten. Onarpen haren aurretik, jendaurrean egon zen artean, ez zen inolako erreklamaziorik egon. Udalbatzak behin betiko babesa eman ostean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari igortzekoak ziren Kontu Orokorraren Espedientea.

### Udal lanpostuak errebisatzeko mahaia osatu da

Udal lanpostuen deskribapen eta balorazioen errebisiorako mahaia zein udal ordezkarik osatu erabaki zuten uztaileko osoko bilkuran. Gobernu taldeak udalbatzari aurkezturiko proposamena gehiengo osoz onartu zen, Bilduren aldeko bozkekin. PSE-EE eta Aralar abstenitu ziren. Eta azkenik, Hamaikabateko ordezkariek proposamenaren aurka bozkatu zuten.

Azken osoko bilkuran onarturiko erabakiaren ondorioz, bi urtez behin egin ohi den errebisio lana udal ordezkariok bideratuko dute:

-Titularrak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdanpilleta Urdanpilleta eta Josu Portu Altzaga.

-Ordezkoak: Jose Maria Rivadeneyra Sicilia eta Iñaki Ugarte Agirre.

### Udal langile plaza

Irailetik aurrera hutsik geratuko den udal langile plaza betetzeko hautaketa prozesua abiatua zuen Udalak uztailean. Onartutako eta baztertutakoen zerrenda ikusgai da usurbil.net web orriandean.










# Ikasteko, inoiz ez da berandu



**Labore ikastaroa astean behin eskainiko da, bi orduz.**

Yoga, zumba, sukaldaritza, eskulanak, pintura... Eta hala, hamar ikastaroko zerrenda osatu arte. Einean Guraso Eskolak prest du ikasturte berrirako eskaintza. Adi, ikastaroetako izen ematea irailaren 15era arte zabalik egongo baita. Apuntatzeko edo informazio gehiago jasotzeko, ikastaro bakoitza bideratuko duen irakasleari deitu behar zaio. Antolatzaileek gogorazten dutenez, "ikastaro hauek usurbildar guztiei zuzenduak daude". Hona hemen, ikastaroei buruzko zehaztasun gehiagoren berri:

### LABOREAK
Noiz: astean behin, 2 ordu.
Iraupena: urria-ekaina.
Irakaslea: Juani 609 413 883.

### YOGA
Noiz: astean behin, 1,5 ordu.
Iraupena: urria-ekaina.
Irakaslea: zehazteko oraindik. 609 413 883.

### BIODANTZA
Noiz: astean behin, 2 ordu.
Iraupena: urria-ekaina.
Irakaslea: Ainhoa 656 745 031.

### KARTOIZKO ALTZARIAK
Noiz: astean behin, 2 ordu.
Iraupena: urria-ekaina.
Irakaslea: Mamen 626 605 007.

### PINTURA
Noiz: astean behin, 2 ordu.
Iraupena: urria-ekaina.
Irakaslea: Susana 609 413 883.

### ESKULANAK
Noiz: astean behin, 2 ordu.
Iraupena: urria-ekaina.
Irakaslea: Susana 609 413 883.

### IDAZKETA KREATIBOA
Noiz: astean behin, 2 ordu.
Iraupena: urria-ekaina.
Irakaslea: Idoia 629 482 474.

### SUKALDARITZA
Noiz: astean behin, 2 ordu.
Iraupena: 6 ordu.
Irakaslea: Igor 670 410 273.

### ZUMBA
Noiz: astean behin, 1,5 ordu.
Iraupena: urria-ekaina.
Irakaslea: Betisa 616 586 851.

### SABEL DANTZA/HIP HOP
Noiz: astean behin, 1,5 ordu.
Iraupena: urria-ekaina.
Irakaslea: Uarda 637 256 851.

### "Guraso eta seme alaben arteko ulertze tailerra"
Bideratzailea: Nerea Mendizabal psikopedagogoa eta haur masajeko orientatzailea.
Iraupena: urria-apirila.
Tokia: Udarregi Ikastola.
Izen ematea: irailaren 19tik 26ra, hitzaho@udarregi.com helbidean. 30 euroko ordainketa 3035 0140 33 1400024098 kontu korronte zenbakian. Bertan, parte hartuko duenaren izen abizenak, eta haurraren izena eta kurtsoa zehaztu.
Nori zuzendua: HH, LH eta DBHko ikasleen gurasoei.
Antolatzailea: Hitz Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkartea.

### "Eraginkortasunez komunikatzen ikastea"
Emakumeentzako ahalduntze ikastaro berria.
Bideratzailea: Pepa Bojo psikologoa.
Hasiera: urriak 7.
Ordutegia: Ostegunero, 17:00-19:00 artean, yoga lokalean.
Izen ematea: doan, irailaren 2tik urriaren 2ra, 943 371 110 edo parekidetasuna@usurbil.net.
Nori zuzendua: gai honetan interesa duten emakumeei, norberaren ezagutzan sakondu nahi dutenei eta/edo egoera jakin batean komunikatzeko baliabide gehiago eduki nahi duten emakumeei.










# 2014ko Atxegaldeko festen zain jada…

Reala "Champions" txapelketa jokatzen hasiko dela eta, aurten txuri urdin koloreko txupinazoa jaurtiz eta Jai Batzordekoek jaiak gauzatzen lagundu duten guztiei eskerrak helaraziz ekin zaie Atxegaldeko festei. Eta hasi bezala amaitu dira, burrunbak eta koloreak bat eginiko Pirotecnia Zaragozana etxekoen su festarekin. Tartean, jai giroz beteriko asteburu bat igaro da. Gau txoriek parranda goizaldera arte luzatu duten, bi musika gau jendetsu izan dira. Haurrekin batera, antolaketa lanetan laguntzen edo seme-alabekin Atxegaldeko festetan parte hartzera joandako gurasoak protagonistak izan dituen goiza izan dute festek. 42 bikote partaide izan dituen inoizko mus txapelketa jendetsu eta luzeena ospatu da, bazkalostean hasi eta afal ordura arte luzatu baitzen karta jokoa. The Hastelens herriko taldeak girotu du aurtengo herri afaria. Karpa azpia bete zuen otorduan, 80 bat lagun giro ederrean aritu ziren kantuan eta Igor Gorriti sukaldari usurbildarrak prestaturiko menua dastatzen.

Eta aipatzekoa baita, igandeko lehia eguna ere; aizkolari, harri jasotzaile, toka eta patata tortilla txapelketen inguruan sorturiko giroa. Bertaratu zirenak dantza batean jarri zituen zumba saioak agurtu ditu aurtengo festak. 2014ra arte. Jaietako irudi batzuk segidan. Argazki gehiago, ikusgai dituzue noaua.com atariko "Argazkitegia" atalean.















The Hastelens



Odolaren Mintzoa

**Argazki gehiago topatuko dituzue noaua.com web orriko Argazkitegian.**

# Masustari gorazarre egingo

## Arantzazu Aranbururen esanetan, masusta "txikia da baina elikagai gisa handia"



Arantzazu Aranburu (kamerari begira dagoena) Kofradiako sortzaileetako bat da.

2006an lagun talde batek, masustari gorazarre egiteko kofradia berri bat osatu eta sustatzeko konpromisoa hartu zuen. 2007az geroztik, kantu afari eder baten bueltan biltzen dira Masustaren Kofradiako kideak, ideia sortu zen leku berean, Txirristra tabernan. Masustaren inguruko otordua ospatzen dute, ereserki eta guzti, eta kofradekide berria izendatzen dute. Zazpi urte igaro dira, eta denbora tarte honetan, taldea handitzen joan da. Aurten hamabigarren kofradekidea izendatuko dute, irailaren 13an ospatuko duten ekitaldian. Hitzordura bertaratzeko gonbita luzatzen du Arantzazu Aranburuk, Masustaren Kofradiaren sortzaileetako batek.

**Kofradiak non du jatorria?**

**Arantzazu Aranburu.** 2006. urtean abuztuan, baba txikiari loturiko kofradiaren eguna ospatu ondorenean, Txirristan geunden bost lagun. Emakumezkook ere kofradiaren bat sortu beharko genuela eta, txantxetan hasi ginen. Sortzen hasita ze kofradia sortuko genuen eta, masustarena, masusta zale eta biltzaileak tartean baikinen. Bostok elkar hartu eta zin egin genuen, urtebete barru kofradia izendatuko genuela, geroni kofradekide izendatuz.

*"Txirristra tabernan eratu genuen kofradia, ideia ere hantxe sortu zen baitzen"*

**Masustarekiko zaletasunak lotu zintuzten bostok?**

**A. A.** Bildu ginen bost lagunen artean, bizpahiru behintzat bai. Eta besteok ere masusta zale egiten ginela aldarrikatzen genuen. Ideia polita iruditu zitzaigun eta horren inguruan kofradia sortu eta masustarekiko halako atxikimendu edo konpromisoa hartzen genuela bagenekien. Hala sortu eta eratu zen 2006an. Kofradiaren izendatzea 2007ko irailaren 7an izan zen. Txirristra tabernan eratu genuen, ideia ere hantxe sortu baitzen. Urtero bertan ospatzen dugu masustaren kofradiaren eguna. Urtero kofradekide bat izendatuz, ekitaldi xume eta polit batekin hasiera eman genion. Eta urtez urte geroztik errepikatzen joan gara.

**Kofradekide berrien izendatzea nola erabakitzen duzue?**

**A. A.** Aurten hamabigarren kofradekidea izendatuko dugu. Kofradia eguneko afarira

## "Une gozo bat pasa nahi duenarentzat, lekua dago"

**Zazpi urteotan taldea handitzen joan da. Ekitaldia bera nola ospatzen duzue?**

**Arantzazu Aranburu.** Lagun arteko eta kantu giroko afari irekia izaten da. Josune ahizpa gitarrarekin etortzen da. Hasieratik bukaeraraino kantuari ekiten diogu eta oso otordu alaia izaten da, kantuz josia. Testu bat irakurtzen da, non masustaren ezaugarriak eta zenbaterainoko balioa duen azaltzen den. Hori guztia babestu eta goraipatuko dugula zin egiten dugu. Denentzako lekua dago, irekia da, une gozo, alai eta lagun artekoa pasa nahi duenarentzat.

**Afaritarako gonbita luzatu...**

**A. A.** Gurekin bat egin nahiko luketen guztiei gonbidapena zabaltzen diegula eta aitzakia polita dela, festa hori egin eta ondo pasatzeko. Masustari halako begirunea edo garrantzia pixka bat eman eta jaso nahian datorrela. Irekia dela afaria, eta guretzat pozgarria litzateke ustekabeko jendea etortzea ere. Izena aldez aurretik eman behar da. Zerrenda bat jartzen da Txirristran edo bestela guri esan. Etorri eta ondo pasa.

**Taldea handitzen doanez, ibilbide luzea izan dezake kofradiak?**

**A. A.** Bai. Kofradekide berriak izendatzen joan ahala taldea ere handitzen doa. Izendapenak hurrengo urteetarako ere lotzen dizu. Horregatik, ez dirudi etenik ekarriko duenik. Gure aldetik ere, kofradia indartzen joateko konpromisoa dugu.

# diote irailaren 13an


2007an osatu zen Masustaren Kofradia, Txirristra tabernan.

> "Hurrengo urtean kofradekidea izango dena hilaren 13ko afarian azalduko dugu"

etorri izan den norbait hautatzen da. Kidea zenbateroko maiztasunarekin etorri den afaritara, hori da kofradekide hautatzeko irizpidea. Huts egin gabe etorri den hura izendatzen da.

**Kofradekide izendatua denak zer konpromiso hartzen du?**
**A. A.** Masusta goraipatuko dugula eta duen baino merezimendu handiagoa duela zabalduko duen konpromisoa. Hemen badugu formula bat, dioena, masusta goraipatu eta sustatzea, duen merezimendua emango diola zin egiten dugu. Eta kofradekideak horretara ere zin egiten du.

**Aurtengo kofradekidea hautatua duzue?**
**A. A.** Aurtengo izendapena emana dugu. Hurrengo urtean kofradekidea izango dena afaritan azalduko dugu.

**Masusta merezimendu beharrean dagoela aldarrikatzen duzue?**
**A. A.** Masusta oso fruitu kaskartzat hartu izan da, edo merezimendu gabekoa. Baina ikasi dugunez, alderantziz da. Masustak egundoko propietateak ditu; indar garbitzailea du, barruak garbitzeko oso ona, bitamina aldetik C eta A ditu, kaltzioa du, burdina ere bai, indar antioxidatzailea eta ematen zaion erabilpena ere zabala da; mermeladak egiteko, likorea ere egiten da.

**Masusta oso presente duzue ekitaldian?**
**A. A.** Bai. Mahaia larraz eta masustaz apaintzen dugu. Eta festa masustaren inguruan egiten da. Menuan oinarrizko jangai izaten dugu: entsaladan ere masustak izango dira. Eta gero postrean ere bai. Masusta likorearekin eta guzti bukatzen dugu. Oso gozoa gainera.

**Ereserkia ere badu kofradiak. Nolakoa da irailaren 13rako egin duzuen hitzordua?**
**A. A.** Afaria bederatzietan izaten da Txirristran. Baina zortziretan Patrin biltzen gara eta han jada kantuan hasten gara, batzuk kapa jantzita. Gero kantuan kalejiran etortzen gara Txirristra tabernaraino. Hor jada bederatzietan mahaian jarri eta afari goxoa egiten dugu eta gero dator ekitaldi xumea. Kofradegai berriaren aurkezpena egiten dugu eta gero guztiok, Cordero ahizpek jositako masustaren ikurdun eta masusta koloreko kapak eta lepokoak janzten ditugu. Bi ahizpok ere, merezimendu handiz kofradekideak dira, eurak baitira gu guztion jantziak eta lepokoak josi dituztenak. Masustaren propietateak irakurtzen dira eta kofradekide berriaren eta guztion zin egitea etortzen da. Zin egitea masusta babestuko dugula eta bere propietateak eta bere merezimendu guztia goraipatuko dugula esanez burutzen da. Afaritan ere, hurrengo urterako kofradegaia izendatzen da. Guztia, masustaren ereserkiarekin amaitzen da. Ereserkiko hitzak nireak dira eta musika, alaba Maria Arrutik egina.

**Zer dio ereserkiak?**
Larraren fruitu xume bat dela, oso ugaria garaia denean. Ale txikia izan arren, elikagaiz handia dela. Eta horregatik guk, zaleok, Usurbilen masustaren kofradia eratzeko ausardia izan dugula. Gero bere propietateak azaltzen ditu, heltzen denean beltza dela, baina elikatzeaz gainera, garbitzen duen jakia dela. Eta baita ere datu bezala, gaur estimu hori galdua badu ere, garai batean erromatarrek adibidez oso estimu handian izan zuten jakia dela. Eta horregatik, guk ere estimu hori berreskuratu nahi dugula.

## Masustaren ereserkia

**Larraren fruitu da bera
garaian zein ugaria!
ale txikiena ere
elikagaiz da haundia.
HORREGATIK, GUK, ZALEOK,
IZAN DUGU AUSARDIA
USURBILEN ERATZEKO
MASUSTAREN KOFRADIA.**

**Masusta heldu denean
beltza da bainan garbia
elikatzeaz gainera
arazten duen jakia.
HORREGATIK, GUK, ZALEOK,
IZAN DUGU AUSARDIA
USURBILEN ERATZEKO
MASUSTAREN KOFRADIA.**

**Erromatarrek zioten
oso estimu handia
guk ere gora dezagun
merezi duen guztia.
HORREGATIK, GUK, ZALEOK,
IZAN DUGU AUSARDIA
USURBILEN ERATZEKO
MASUSTAREN KOFRADIA.**

# Aurrera batera egiteko

## GAZTE EGUNA OSPATUKO DA LARUNBAT HONETAN USURBILEN, ERNAIK ANTOLATUTA

Aldaketa handiak norberak egin ditzakeen keinu txikietatik abiatzen direla jabetuta, zapalkuntzei aurrei egin eta alternatibak taldean eraikitzea sustatzeko, eta aurrera begirako bidea ere batuta jorratzeko, "Batera egingo dugu" kanpaina burutu du Usurbilgo Ernaik uda honetan zehar. Amaiera emateko, Gazte Eguna antolatu dute larunbat honetarako, irailaren 7rako. Kolektiboki eragitea, etorkizunean elkarlanean aurrera egiteko deia luzatzen diete gazteei.

Hilaren 14rako iragarria bazuten ere, astebete aurreratzea erabaki dute Gazte Eguna. "Kanpaina honi bukaera emateko, azken kolpea eman nahi dugu Gazte Egunaren bidez. Bertan, Usurbilgo gazte desberdinei gonbita luzatu nahi diogu Ernaik antolatuko dituen ekimen desberdinetan parte hartzeko", adierazi dute antolatzaileek. Eta batera egiteko adostasuna adierazten den heinean, urratsak ematen jarraitzeko. Usurbilgo Ernaitik adierazi bezala, keinuak egiten segitzeko, "keinu batekin hasten dira eta aldaketa, iraultza guztiak".

Mural pintaketa, jokoak, kalejira, herri bazkari eta kontzertuekin osatu dute irailaren 7ko egitaraua. Datorren Gazte Egunak, keinu desberdinez hornitu duten udako kanpaina borobilduko du. Iñigo Cabacasi buruzko dokumentala ere proiektatu baitute, baita Usurbilgo Gaztetxearen lehen urteurrenaren testuinguruan, "Tximeletak: gazte mugimenduaren metamorfosia" izeneko lana ere. Iragan ostiralean, egun gatazkak bizi duen blokeo egoera islatu nahi izan zuen Usurbilgo Ernaik, Mikel Laboa plazan eginiko parodia baten bidez. Eta "blokeo egoera gainditu eta gatazka konpontzeko gai garela" adierazi nahi izan zuten. "Herri honek bizi duen gatazka gainditu eta askatasunean bizitzeko determinazioa dugu, euren (Frantzia eta Espainiako) mugetatik at gu geu izan nahi dugulako, gure herri eta gure eredu propioa eraiki nahi dugulako", diote Ernaitik. Horregatik, "gatazkaren konponbidean aktibatu eta batera borrokatzeko gonbita luzatzen diogu gazteriari".

**Harreman bira, gazte koadrilekin**

Hauek, uda partean Usurbilgo Ernaik antolatu dituen jendaurreko ekimenak. Hitzorduok deitzearekin batera, harreman bira bat abiatu zuten abuztuan herriko gazte koadrila desberdinekin. Gazteon iritziak jaso nahi ziren. "Beraien zapalkuntzak, beraien ezinegonak, ze irrika dituzten jaso edota alternatibak garatzeko. Horren arabera baita ere harreman bira honetan islatu da, denok beharrezkoa ikusten dugula gazteok ditugun kezka, zapalkuntza edo arazo horiek gainditzeko batera egite hori", adierazi dute Usurbilgo Ernaitik.

Apirilean jendaurrean aurkeztu zen gazte mugimendu berriak, keinu gehiago izan ditu uda aurretik ere, sorreratik, "independentzia, feminismoa eta sozialismoa lortze bidean, gazteok hitza, gazteok erabakitako tresna berri bat behar genuen, gure ekarpenak egin eta urratsak eman ahal izateko". Udaberritik hona egindako ibilbidean, maiatzaren 30ean gehiengo sindikalak deituriko greba orokorraren harira eginiko kanpaina nabarmentzen du Ernaik, orain arteko ekimen nagusi bezala. "Orduan gazteriari eskatzen genion keinu bat egiteko, adieraziz eta nolabait ere jarri nahi genuen borrokaren balioa berriro mahai gainean. Borroka bera gorputzu nahi genuen, borroka bera azaleratu nahi genuen eta erakutsi, keinu txikien adibide desberdinak egon direla historian, eta borroka txiki horiekin aldaketa handiak eman direla", eta hortik etorri da udako "Batera egingo dugu" kanpaina. Usurbilgo Ernaik, larunbateko Gazte Egunarekin amaitutzat emango duena.




**Aurreko astean parodia modukoa egin zuten Ernaiko gazteek. Ordukoa da argazkia.**

### USURBILGO ERNAI

***"Gatazkaren konponbidean aktibatu eta batera borrokatzeko gonbita luzatzen diogu gazteriari"***

## Mural pintaketa, jokoak, bazkaria, kontzertuak…

**Irailak 7, larunbata**

- 10:00 Esnadeia.
- 11:00 Mural pintaketa frontoian.
- 13:00 Kalejira frontoitik abiatuta, trikitixa eta panderoarekin girotua. Joko desberdinak egingo dira ibilbidean zehar.
- 14:30 Gazte kantu bazkaria frontoian. Txartelak: Aitzagan salgai, 10 eurotan. Epea: irailak 6, ostirala.
- 19:00 Kontzertuak frontoian.

Oharra: txosna egongo da frontoian.
Antolatzailea: Usurbilgo Ernai.

## Gutun soziala osatzeko bigarren batzar irekia

Datorren astearterako, irailaren 10erako finkatu dute hitzordua, 19:00etan Potxoenean. Euskal Herriko Oinarrizko Eskubideen Gutuna osatzeko prozesuaren baitan antolatu da bilkura hau. Deitzaileek, hitzordura bertaratzeko gonbita luzatzen diete herritarrei.



**Juanjo Lizartza**

# Sariako egitasmoaren aurkezpena dela eta...

**AGINAGA**
2013-08-26

Joan den uztailaren 11n Sariako egitasmoaren aurkezpen bilerara joateko aukera izan nuen. Orain, bilera hartatik jasotako inpresioak eta han esandakoek nigan sortu dituzten kezkak azaltzeko aukera aprobetxatu nahi dut.

Sartu eta berehala, pertza beretik jaten ohituak dauden gehiengo batekin egin nuen topo.

Bileraren aurkezpenari ekin zioten elkarri loreak boteaz. Jarraian, aurkeztu behar zuten proiektua aurrera eramateko zergatiak zerrendatzen hasi ziren, horretarako aurrez egindako jarduera guztiak gutxietsiz; aurretik egindakoak hankaz gora ipiniaz. Besteak beste, esan zuten:

-Padura guztietan bete lanak egitea moskitoak uxatzeko "moda" bat izan dela.

-Paper-fabrikek izugarrizko kaltea eragin dutela.

-Orioko itsasadarrean egindakoak astakeriak direla.

Entzuleen artean ere bazen sasiteknikoren bat esan zuena: zanpiura (muntoa) duela 40 urte makinaria erabiliaz egin zela.

Hauez gain, NOAUAko azken alean diote proiektu honek landa lurren egoera txarrari irtenbidea emango liokeela. Gazitasunaren erruz landa lurrek ez dutela emaitza onik eman, ez eta zuhaitzei (makalei) lagundu ere.



Sariako egitasmoa uztailean aurkeztu zen, Potxoenean.

Bileraren bigarren atalean proiektu honek ekarriko lituzkeen onurak azaldu zituzten:

-Europako arauak betetzea.

-Hegaztientzat eta beste hainbat espezierentzako gune bilakatzea.

-Angula birsortzea.

-Turismoa bultzatzea.

Finean, gizartearentzat ona den proiektu bat bultzatu nahi lukete. Munduaren salbatzaileak ote?.

Garbi adierazi nahi dut nire begien aurrean neuk ere horrelakoxe paraje bat nahi dudala; ez hori zalantzan jarri. Hala ere, han entzundakoak hausnartu ondoren, nire iritzia emango dut.

-Padurak betetzearen arrazoi nagusia moskitoak izan ordez, ez ote zen gosetea izango? "Landa lurrak sortu eta landu, ala Ameriketara" atakaren aurrean ez ote ziren gertatu?

-Paper-fabrikek ibaietara bota dituztenak izugarriak izan dira, baina hainbat eta hainbat familiaren euskarri ere izango ziren, ez?

-Orioko itsasadarrean egindakoak ere ikaragarriak omen, baina haiek ere turismoaren izenean egin dira denbora asko ez dela. Ez al dira teknikari berak lehen lan horiek ontzat eman eta orain astakeria bezala ikusten dutenak?

-Zanpiura (muntoa) nire aiton eta aita zenaren garaikoa da; dena eskuz eta auzolanean egina, izerdi ederrak boteaz.

-Landa lurren oraingo egoera ez da gatzarengatik, utzikeriagatik baizik; edozein irtenbide baserria baino hobea izan delako beti. Eta bai, makalak bai, gatzak hondatu ditu, baina zanpiurak zuek puskatu dituzuelako, ur gaziari bide emanaz.

Proiektuak ekarriko lituzkeen onuretan aipatzen duzue:

-Europako arauak beteko omen liratekeela. Komeni denean Europa edo Espainiak esandakoari men, eta komeni ez denean burujabetza aldarrikatu...

-Hegazti eta animalia berrien etorrera ikusteko dago.

-Angula birsortuko dela. Ezin al da antxoarekin bezala arrantza mugatu?

-Turismoa bultzatuko omen du. Naturari lotutako ekimen oso gutxi dira turismoarekin uztartzen direnak.

Tira, orain artekoa nire pentsatzeko modua da, baina lurrak muga horietan dauzkagun auzokideok, beste kezka batzuk ditugu. Guk ederki dakigu lurraren jabe izanagatik, enpresa handiek markatutako jokoarauen barruan mugitu behar izaten dugula: Kosta Legea, Iberdrola, Errepide Nazionala, Telefonika, Añarbeko ur hornidura sarea, Gas Naturala e.a... Hauek guztiak gizartearen onurarako lan egiten dutela badakit ederki, baina "handiak izanik" berak beti nagusi eta guk arauak bete behar. Gure lurren jabetza zergak ordaintzera mugatzen da soilik.

Gure kezka nagusia da oraingo proiektu hau ere ez ote den izango guretzat beste "arau-betetze" sorta bat: betekizunik suposatuko al du gure egunerokoan? Eraginik izango al du gure lurretan?

Honetaz guztiaz mahai baten inguruan hitz egiteko prest gaituzuela adierazi nahi dizuegu, eta besterik ezean, galdera hauen erantzuna idatziz jasoko dugulakoan, zuen zain gelditzen gara.







# Ehun urte bete ditu Petra Pozo Pizarrok

Ondoko irudikoa, Petra Pozo Pizarro herritarra duzue. 100 urte bete zituen joan den abuztuaren 10ean. Fraisoroko egoitzan bizi da, eta bertara hurbildu ziren senideak, egun berezia Petrarekin eta hango lagunekin batera ospatzera. Han zen baita Usurbilgo udal ordezkaritza bat ere. Zumetaren serigrafia eta lore sorta bat oparitu zizkioten omenduari. Dantzari baten agurra ere jaso zuen, urduri zen ehun urteko herritarrak. Bejondeizula Petra, zorionak!!!



**Usurbilgo udal ordezkaritza baten bisita jaso zuen urtebetetze egunean.**

## Menpekotasuna duten pertsonen zaintzarako ikastaroa

Ikasturte hasiera da, ikastaro ezberdinak abiarazteko garaia. Usurbilgo Udaleko gizarte zerbitzuek badute eskaintzarik egiteko. Ikastaro honetan jorratuko diren gaiak hauek izango dira: menpekotasuna, gizarte zerbitzuetako baliabideak, legea eta etika, zaintzaileen zaintza eta laguntza teknikoak.

- Datak: irailak 11, 18, 25 eta urriak 2 eta 9.
- Ordutegia: 15:00-17:00.
- Lekua: Potxoenea.
- Izen-ematea: doan, irailaren 6a baino lehen, 943 371 110 telefono zenbakian.

## Amador Granados, Kanadako Munduko Txapelketan

Txirrindularitza egokituko mundu mailako txapelketan parte hartzekoa zen egunotan. Iragan ostiralean erlojuz kanpoko proba zuen, eta asteazken honetan, 57,2 kilometroko bidea osatu behar zuen usurbildarrak. Bere kontutik joan da Granados Kanadara, Usurbilgo Udalaren eta Basque Team taldeak emandako laguntzarekin. Federazioak kategoria bakoitzeko hiru txirrindulari baino ezin zituen eraman eta Felix Garcia Casas hautatzaileak ez zuen usurbildarra Kanadara eramateko hautatutako kirolari taldean sartu.

## Soinketa erritmikoa eta hip-hop saioak Tximeletarekin

Tximeleta taldekoek soinketa erritmikoa edota hip-hop saioak eskainiko dituzte aurten ere.

Izen emateko epea ireki dute jada. 943 11 63 42 telefono zenbakira deitu edo helbidera honetara idatzi: info@grupotximeletataldea.com

Taldeak osatu artean behintzat, hauxek izango dira Oiardo Kiroldegian egingo diren saioetako hitzorduak:

- Soinketa erritmikoa: astearte eta ostegunetan, ordutegia 16:45-17:45 artean.
- Hip-Hop: ostiraletan, ordutegia 17:00-18:00 artean.

# Usurbil Kirol Elkartearen batzarra

Eskubaloi taldeen bilgunearen gorabeherez hitz egiteko finkatu dute deialdia, larunbat goiz honetarako, 10:00etan Sutegin.

**50. URTEURRENA**

Eskubaloia, "urrezko ezteiak" betetzear da Usurbilen. Herri mailako ziurrenik elkarte aitzindarienak, 50 urte betetzear ditu. Horren harira, eskubaloi taldeen bilguneak mende erdia ekitaldi bereziekin ospatzeko asmoa du. Hitzorduok, irailaren 16tik 23ko astean ospatuko dituzte. Besteak beste, elkartearen historia jasoko duen liburua aurkeztuko dute jendaurrean. Datorren astekarian plazaratzear den argitalpen berri honen inguruko zehaztasunak jasoko ditugu, baita 50. urtemugaren harira, Usurbil Kirol Elkarteak antolatu duen egitaraua ere.

# Ohiko ordutegira itzulera

## Oiardo kiroldegia

-Astelehenetik ostiralera: 7:00-12:30 eta 14:30-22:00 (igerilekua 21:00ak arte).
-Larunbatetan: 9:00-21:30 (igerilekua 21:00ak arte).
-Igande eta jai egunetan: 9:00-13:30 (igerilekua 13:00ak arte).

## Bus taxia

-Astelehenetik ostiralera: 7:30-8:30, 10:30-11:30, 13:00-14:00, 15:30-16:30 eta 19:00-20:00.

## Sutegi liburutegia

(irailaren 9tik aurrera):
-Astelehenetik ostiralera: 10:00-13:00 eta 16:00-19:30.
-Larunbatetan: 10:00-13:00.

## Garbigunea

-Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00/16:00-19:00.
-Larunbatetan: 9:00-13:00.

## KzGunea

Ordutegia: 9:00-13:00.
Ikastaroak:
-Irailak 5-13: 11:00-13:00, Irudia eta soinua ikastaroa.
-Irailak 16-23: 11:00-13:00, Software Librea ikastaroa (erdaraz).
-Irailak 19-27: 9:00-11:00, Sare Sozialei buruzko ikastaroa
-Irailak 25: 11:00-13:00, IT Txartela eskuratzeko aukera.

Informazio gehiagorako:
943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net
Kale Nagusia, 37.



**Goizez irekita izango da irailean.**

# Irailaren 15ean, Artikutzara



**Irteera honetan, plazak mugatuak izango dira eta lehentasuna Andatzako bazkideek izango dute.**

Irailaren 15ean Artikutzara goiz pasa joateko gonbita luzatzen diete herritarrei, Andatza Mendizaleen Kirol Taldetik. Txangoan izen ematekoepea zabaldu dute jada. Irailaren 11 baino lehen egin behar da ordainketa, aipatu kirol bilguneak Kutxabanken duen kontu korronte zenbaki honetan: 2095 5069 07 1068489805. Andatzako bazkideek, langabetuek eta ikasleek 10 euro, gainerakoek 12 euro ordaindu beharko dituzte.

**Ezkaxetik irten eta Ezkaxera itzuli**

Joan etorria autobusez egingo da. Goizeko 7:00etan abiatuko dira Oiardo Kiroldegitik. Artikutza inguruetan, 5 bat orduko tartean, 16 kilometroko ibilbidea osatuko dute mendizaleek. "Ezkaxetik hasiko da ibilaldia eta Izuko tontorra eta Artikutzako herria igaro ondoren Ezkaxera itzuliko gara", berri eman dute antolatzaileek. Irteerari buruzko zehaztasun gehiago, www.andatza.com atarian.

# Munduko txapeldun, beste behin

Kayaksurfeko euskal selekzioak ez du parekorik. Uztailean zehar Australian jokatu zen munduko txapelketako garailea dugu berriz. Talde kideen artean dira Garazi Iturralde zubietarra eta Xabier Olano usurbildarra. Hori gutxi ez eta, taldekako txapelketa irabazteaz gain, banakako lehian ere euskal selekzioko kideak ere lehen postuetan sailkatu dira.

"Final indibidualak uztailaren 21ean ospatu ziren, olatu txikiko igande eguzkitsu eta bare batean. Edonork irabazi zitzakeen finalak, izan ere, final estuak izan ziren. Hala ere, txapeldunek erakutsi zuten garaipena merezi zutela, beste baldintzetan hain erabakiorrak ez diren trebetasunak azalduz, kolokazio ona, pazientzia eta olatu onei itxaroten jakitea, alegia. Honela, txapeldunek surf bikainaz, inteligentziaz eta joko onaz menperatu zituzten arerioak. Eta, zortearen faktorea jokoan egon bazen ere, gehienetan hoberen lehiatzen direnei laguntzen diola esan beharra dago", adierazi dute selekziotik. Bederatzi final ospatu ziren, horietatik zazpitan euskal selekzioko ordezkariren batek parte hartu zuen.

Guztira, zortzi domina irabazi zituzten: 3 urre, 4 zilar eta brontzezko domina bat. Horietako bi Garazi Iturralde zubietarrak:



**Garazi Iturralde eta Xabier Olano ageri dira argazkian, egindako lana ospatzen.**

Junior HP: Odei Etxeberria (1. postua)
Junior IC: Odei Etxeberria (2. postua)
Grand Master: Txema Carreto (2. postua)
IC Neskak: Ainhoa Tolosa (1. postua) eta Garazi Iturralde (2. postua)
HP Neskak: Garazi Iturralde (3. postua).
Open IC: Edu Etxeberria (2. postua) eta Julen Arrizabalaga (4. postua).
Open HP: Urko Otxoa (1. postua).

**Zarautz, hurrengo hitzordua**

Urriaren 5ean eta 6an Euskadiko Kopa jokatuko dute. Beraz, honakoan, bertatik bestara ikus ahal izango ditugu kayaksurf estiloko kirolari hauen balentriak.

## Oiardo Kiroldegiko eskaintza 2013-2014 ikasturteari begira

Oiardo Kiroldegiak ere prest du 2013-2014 ikasturterako eskaintza. Jarduera fisikoko ikastaroen zerrenda hau igorri digute. Ordutegien xehetasunen berri jakiteko, Kiroldegian jasoko duzue informazio gehiago. Ikastaro luzeetako prezioak ez dira igo eta ikastaro luzeak ordaintzeko erraztasun gehiago daude.

| | |
|---|---|
| AEROBIK | 2 egun astean |
| MANTENTZE GIMNASTIKA | 3 egun |
| YOGA | astean behin |
| ZUMBA | 2 egun astean |
| ZUMBA | 2 egun astean |
| ZUMBA | 2 egun astean |
| 3. ADINA | 2 egun astean |
| LASTERKETA PRESTAKUNTZA | |
| TONIFIKAZIOA+GAP+LUZAKETAK | |
| PILATES | 2 egun astean |
| PILATES | 2 egun astean |
| SPINNING | 2 egun astean |
| SPINNING | 2 egun astean |
| HAURTXOAK | 3 hil-24 hil |
| HAURTXOAK | 3 hil-24 hil |
| URETARA MOLDATZEA | 2009,10 |
| URETARA MOLDATZEA | 2006,07,08 |
| UR LUDOTEKA | 2009,10 |
| UR LUDOTEKA | 2006,07,08 |
| IGERIKETA ESKOLA | 2005,04,03, ... |
| IGERIKETA HASTAPENA | Helduak |
| IGERIKETA HOBEKUNTZA | Helduak |

## Iñaki Errasti eta Kaiku laugarren, Kontxako Banderan

Igande honetan, irailaren 8an erabakiko da Kontxako Bandera nork eramango duen. Lehia bizia izango da beste behin, Donostiako uretan. Lehen jardunaldian, gizonezkoetan Urdaibai (19:17.14) nagusitu zen. Atzetik, hiru eta sei segundotara sailkatu ziren, Hondarribia eta Orio hurrenez hurren. Eta laugarren, 13 segundotara, Kaiku eta aipatu ontziak talde kide duen Iñaki Errasti aginagarra. San Pedro, Portugalete, Tiran eta Donostiarra azken postuetan geratu ziren. Emakumezkoen EuskoTren Ligan, Zumaia nagusi (10:37), Hibaika bigarren 10 segundora. 18ra San Juan eta azken postuan, Mecos galiziarrak.

## ETXEBIZITZA

### Salgai

Baxua salgai Errekatxikin (61 m2) + pisu azpiko trastelekua (61 m2). 2008ko obra berria. Logela, ikasgela, egongela-jangela-sukaldea eta komuna. Aire egokitua, berogailua, beira bikoitzeko leihoak... oso funtzionala. Bizitzen jartzeko. 649 895 858

Pisua salgai Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea.Iñaki (665736896)

Pisu bat salgai Munalurran. 3 logela, 65 metro, berritzeko. Fatxada eta portala berritu berriak. 138.000 e. 617 972 350.

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bizitza salgai Kalezarren, 120 metro koadro. 16 m terraza, 80 m jardina eta garaje itxia 2 plazakoa. 676 453 176.

Roller etxeko modulo bat salgai Errioxako Fuenmayor herriko kanpinean. Informazio gehiagorako: 615 760 461.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 1. pisua igogailu gabe, + 60metroko trasteroarekin pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalefakzioa, parket... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan (216.000 euro inguru)

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailez helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sailean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbararekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzen jartzeko. 699680265. 32 milioi pezeta.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berrituta, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

### Alokairuan

Kaxkoan pisu bat alokatzen da altzariekin, 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta trasteroarekin. 618 860 270

3 gelako etxea alokagai erdialdean 700€ gehi gastoak. Gelaka ere alokatuko genuke. 630713583

Kaskoan pisu bat alokatzen dugu, Txaramunton. 4 gela, sala, bi komun eta sukaldea. Abala eskatzen da. Tlf. 688 675 856

Pisu bat alokatzen da kaskoan,3 logela,sala,sukalde, komuna. Dena kanporaldera, eguzkitsua.648868599

Kaxkoan pisu bat alokatzen da, 3 logela, sukaldea, egongela, komuna , ganbara eta igogailuarekin. 943371495-695767821-657711335

Gela bat alokatzen da dena berritua kaxkoan, gizaseme langile jubilatu bati. Etxe lasaia. Atzerritarrik ez. Tel. 687 348 223.

Logela bat alokairuan Zubietan. 350 euro. 655 744 039.

Alokairuan dagoen etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. 661568471

Pisua edo pisuko gelak alokatzen dira Kontseju Zarra kalean. Pisu eguzkitsua, kanpoaldera ematen du. Alokairu prezioa: 700 euro (pisu osoa), 300 euro gela bakoitza. 650 262 101 / 678 697 213.

Logela bat alokatzen da Usurbilgo pisu berritu batean. 657 700 408

Bi solairuko etxea alokairuan Kalezarren. Baratzea egiteko aukera. 665 720 913.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil 622 856 181.

## MOTORRA

### salmenta, garajeak

SsangYong autoa salgai, Mercedes motorduna. Egoera onean. 1.500 euro. Joxe Mari 943361512

Garaje itxia alokatzen da 22 m2-koa San Esteban kalean (Etxealdia). Arratsaldez deitu 943373185

Garaje itxita salgai. 20 m karratuak. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

Opel Zafira salgai, 1.7 81cv. 2010eko urrikoa.25.000 km. Oso egoera onean. 652759267

Seat Ibiza 1.4Tdi 80 zaldi. 58.500km. 2009 urte amaierakoa,5 ate, txuria. Jabe bakarra, ez erretzailea eta beti garajean.

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko modukoa 667984083

Garaje itxi bat alokagai Artzabalen, frontoi ondoan. 647120253

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunto kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

## LANPOSTUAK

### Lan eskaerak

Klase partikularrak ematen ditut edozein irakasgaietan. Esperientziaduna. Ordutegi eta prezioak adosteko erabateko malgutasuna. 634417969(Amaia)

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaixo dauden pertsonei erizain zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrak emateko prest nago.Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsaldez. Irakaskuntza gradua bukatzear eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrak ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goiz zein arratsaldez. Irakaskuntzan diplomatua. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketan. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketan eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsu eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umeei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia daukat. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperiantziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2.mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676



Odeiek uztailaren 25ean 2 urte bete zituen eta Norak abuztuaren 20an 5 urte. **Zorionak!** Bereziki Lideren partez.



**Zorionak Ekain!** 12 urte beteko dituzu irailaren 8an. Muxu handi bat etxekoen partetik.




**Zorionak kalezartarrok!** Udako beroari gure bihotzetako berotasuna gehituta, bi Estatuen egoskorkeria kixkalita utziko dugu. Eutsi goiari!

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrak emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat, haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko ostalaritzarako, interna moduan673445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zaindu arratsaldez edo zerbitzari gisa lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

## Lan eskaintzak

Zubietan goizetan etxeko lanak egiteko egun erdiko lana eskaintzen da. 695 783 202 (arratsaldetan deitu)

Emakume euskaldun eta esperientziduna behar da Astigarragan, haur txiki bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Egun osoan, astelehenetik ostiralera. 943 550 550

Pizza banatzailea behar da Usubilgo taberna batean. Telefono zenbakia: 9433743 30

## BESTELAKOAK

Kolore more eta grisdun neskentzako bizikleta berria (Coluer) lapurtuzigutenabuztuaren 31n arratsaldez, tren geltoki inguruan. Aurkitzen baduzu, deitu 689 769 282

3 urteko ume baten jolasteko motorra ahaztua utzi zen Irailaren 1ean Artzabal inguruan. Inork aurkitu badu deitu: 607 48 45 97

Aginagako artoa salgai 687706363

Teniseko raketa bat aurkitu da Erreka Txiki parkean. 943 371 044.

Usurbilgo baserri batean hazitako oilasko eta untxiak saltzen ditugu. 652 725 022.

Botilei tapoiak jartzeko enkortxadora bat salgai, 100 euro. Asadore elektriko bat, 100 euro. 943361235

Erosi gasolina sorgailu elektrikoa, berria erabili gabe, 80 euro. 689880561

Hemengo intxaurra erosiko nuke, deitu 634 409 888

Erromeri talde baterako, tronpeta eta tronboi jole bila gabiltza uda honetako kontzertuetan hasteko. 660214740

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Usurbil eta inguruetan belardiak hartuko nituzke, belar ondua egiteko. 667406010.

2. eskuko josteko makina bi salgai. Modu onean. 943 36 32 01.

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

## TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, esekigailuak, haurren kotxe kapotak, bi kanpin denda handi, bizikleta estatikoa, ispilua, liburuak, haur jolasak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: goizez, 10:15-13:00 artean; arratsaldez, 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean.

# Telefono interesgarriak

| | | | |
|---|---|---|---|
| Udala | 943 371 951 | Abere-Landare Babeslea | 943 376 650 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 | Taxia (Angel) | 607 928 770 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 | Taxia (Joxe Kruz) | 677 373 466 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 | Eusko Tren | 943 470 976 |
| Sexu Aholkularitza Gunea | 697 919 516 | LurraldeBus | 943 000 117 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 | Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 | Anbulategia | 943 362 013 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 | Oa botika | 943 376 076 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 | Iturralde botika | 943 363 395 |
| Haur Eskola | 943 374 061 | DYA | 943 464 622 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 | Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 | Emergentziak | 112 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 | Genero-indarkeria, arreta | 900 840 111 / 016 |
| KZgunea | 943 023 684 | Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 | Gipuzkoa Donostia Kutxa | 943 361 202 |
| Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 | Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 | Banco Guipuzcoano | 943 370 006 |
| Etumeta AEK Euskaltegia | 607 609 379 | Banco Popular Español | 943 370 411 |
| Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 | BBVA | 943 377 155 |
| Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 | Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 | Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 | Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| Usurbilgo Salbatore Parrokia | 943 361 239 | Telefonica | 1004 |
| NOAUA! Kultur Elkartea | 943 360 321 | Euskaltel | 900 840 840 |

# Goardiako farmaziak irailak 5-irailak 15

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Osteguna** | 5 | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Ostirala** | 6 | ACHA-ORBEA | Hipodromo etor. 6. Lasarte |
| **Larunbata** | 7 | RODRIGUEZ | K. Nagusia 42 Lasarte |
| **Igandea** | 8 | RODRIGUEZ | K. Nagusia 42 Lasarte |
| **Astelehena** | 9 | URBISTONDO | San Franzisko 1 Lasarte |
| **Asteartea** | 10 | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte |
| **Asteazkena** | 11 | ORUE | Pl. Jaizkibel 2 Lasarte |
| **Osteguna** | 12 | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32 Lasarte |
| **Ostirala** | 13 | RODRIGUEZ | K. Nagusia 42 Lasarte |
| **Larunbata** | 14 | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Igandea** | 15 | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegikalea 8 (Antziola). Hernani. 943 336 022
22:00 - 09:00

Abuztuko goardiako farmazien berri jaso nahi duenak, www.noaua.com orrialdeko albistegian topatuko du.

## Heriotzak

**Fermin Mindegia Ezkurra**
77 urterekin hil zen
abuztuaren 29an



## Heriotzak

**Luismari Ibarguren Arrillaga**
58 urterekin hil zen
Txokoalden



## Heriotzak

**Maria Isabel Iztueta Lizaso**
73 urterekin hil zen
abuzturaren 22an



Ohar, zorion-agur, jaio edo hildakoen berri emateko azken eguna:
asteartea, eguerdiko 11:00etan
erredakzioa@noaua.com

# Agenda iraila

## 6 ostirala

- **Santixabeletako argazkien emanaldia** 22:00etan frontoian, Ibai Arrietaren eskutik.

## 7 larunbata

- **1813an Donostia birsortzen lagundu zutenei omenaldia,** 12:00etan Zubietan.
- **Gazte Eguna** (ikus 12. orria).
- **Usurbil Kirol Elkartearen batzarra** 10:00etan Sutegin, interesdun orori irekia.

## 8 igandea

- **X. Giza Katea,** 11:30ean Kontxako hondartzan (Alderdi Eder, hondartza sarrera).
- **Marea Urdina, Herrirak deituta.** 13:30ean Donostiako Bulebarrean.

# Errausketaren aurkako giza katea egingo da igandean Donostian

Urtero moduan, hamargarren urtez jada, errausketaren aurkako giza-katea deitu dute, Kontxako Bandera ospatuko den bigarren jardunaldi egunerako, igande honetarako, irailaren 8rako. Goizeko 11:30etan, Kontxako hondartzara jaisteko Alderdi Eder paretik dagoen pasabidean finkatu du hitzordua, Errausketaren Aurkako Herri Plataformen Koordinakundeak.



Giza katea 11:30ean egingo da.

### Tren zerbitzu gehiago

Iragan igandean bezala, irailaren 8an ere, Kontxako Bandera nork irabazi duen ikustera joateko tren zerbitzu gehiago eskainiko ditu EuskoTrenek. Usurbildik orduotan igaroko da trena, Donostia aldera: 9:24, 9:36, 9:54, 10:24, 10:36, 10:54, 11:24, 11:36. Bestalde, astelehenaz geroztik indarrean da autobusen neguko ordutegia. Informazio gehiago: euskotren.es edo 902 543 210. Hilabete honetan zehar kaleratuko ditu NOAUA!k, udalerriko garraio zerbitzuen ordutegiak.

## Marea urdina osatzeko deia

Igande honetan, Kontxako estropadaren bigarren jardunaldian, olatu bat osatzera deitu du Herrira mugimenduak. "Eguerdiko 13:30etan, giza eskubideen urraketa eta sufrimenduaren enbata atzean utzi eta konponbideari eta bakeari ateak irekiko dizkion marea urdina osatuko dugu Donostiako Bulebarrean. Guztiok batera, ilaratan eserita, zapi urdinak eskuetan hartu eta arraun eginez, 197/2006 doktrina hondoratuko duen olatua osatuko dugu", hala jasoa dago usurbileginez.com web orrian.

## Garbigunean eskura daudenak

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, esekigailuak, haurren kotxe kapotak, bi kanpin denda handi, bizikleta estatikoa, ispilua, liburuak, haur jolasak... Horiek denak topatuko dituzue Atalluko Garbigunean. Eta noski, doan hartu daitezke.

Interesa duenak, jakin beza ordutegi honetan topatuko dituela Garbiguneko ateak zabalik.

- Astelehenetik ostiralera: goizez, 10:15-13:00 artean; arratsaldez, 16:00-19:00 artean.
- Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean.

## Datozenak

### Ostiral honetan Santixabeletako argazki emanaldia

Bi hilabete igaro dira herriko festak ospatu zirenetik. Baina udako oporraldiaren bueltan, zer hobeto, giro ederrean frontoira gerturatu eta aurtengo Santixabeletako hainbat pasarte gogora ekartzea baino. Horretan lagunduko du, Udalak ostiral honetarako, irailaren 6rako, gaueko 22:00etan antolatu duen argazki emanaldian. Ibai Arrieta usurbildarrak herriko festetan ateratako irudi bilduma ikusteko aukera egongo da aurten ere.

### EH Sukarra, Santueneko jaietan

Atxegaldeko festak pasata, jaien lekukoa Santueneak hartuko du irailaren 20ko asteburuan. Bertako Jai Batzordeak prest du egitaraua. Nabarmentzekoen artean, EH Sukarra taldekoen kontzertua iragarri dutela, jaietako lehen gauerako.


Irailaren 20an izango dira Santuenean.

JON ELORZA
IGELTSERITZA OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4 20170
Tlf 943 37 08 78 USURBIL


tobyngana
english SCHOOL
eman zure izena orain!
tel: 686 493 775 (Toby)
emaila: tobyngana@hotmail.com
zatoz!
zabalik
Alperroburu kalea 2, Usurbil


salto gela
psikomotrizitatea
2011an eta 2012an jaiotako haurrentzako saioak
2011an jaiotako haurrak
noiz: astearte eta ostegunetan
Saio bat edo bi (aukeran)
ordutegia: 10:00-11:15
Hileko kuota: Astean egun bat 30€ eta 60€ astean bi egun
2012an jaiotako haurrak
noiz: astelehen eta asteazkenetan
Saio bat edo bi (aukeran)
ordutegia: 10:00-11:00
Hileko kuota: Astean egun bat 40€ eta 80€ astean bi egun
Kale Nagusia 27, Lasarte-Oria Tel. 617 294582
www.saltogela.net


Zure sagardoa egiteko behar duzun guztia daukagu!
ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK
ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba
Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba
alkartasuna@alkartasuna.com
Atallu industraldea, 26
943 36 11 14

# Ofizioen Gida

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net
·ERAIKUNTZAK ·OBRAK
·BERRITZE LANAK

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
663 08 76 71
943 24 34 65
Barne eta kanpoko lanak

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
teilatuak eta fatxadak
943 37 38 79
620 80 01 86
Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

Josue Igeltseritza S.L.
Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu, 28
20170 - USURBIL
606 37 21 05
Igeltseritza orokorra

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra
943 240 176 eta 649 435 470
Oztaran auzoa 33, URNIETA

ANORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA
·komertzial instalazioak
·beira bikoitza ·segurtasun beirak
·dutxa-itxiturak eta irristailuak
943 37 17 33- 610 45 93 45
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA

Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA
Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA
659 675 283

LATAILLADE
ITURGINTZA
Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua
943 363 348 - 609 888 021

Javier Orbegozo
GASA-BEROKUNTZA
659 602 789
erreka txiki 13, 3.esk

JOSEBA ARANGUREN
ITURGINTZA
943 83 00 72
659 88 39 12

Bainu eta sukalde erreformak, gasa, berokuntza
Josetxo Ikatzeta
687 951 225

PLADUR

ESKAIOLA PLADUR
Joxean Elorza -USURBIL
699426042

Antonio Urruzola
AROZTEGIA
Tel/Fax: 943 376 415
Asteasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi Imanol
AROZTEGIA
943 362 664
Barren Etxe kalea ZUBIETA

izagirrelektrizitatea@hotmail.com
izAgirre
Elektrizitatea
Apdo. 37
943 36 50 95
609 06 81 11
943 37 65 87
Goiz Argi etxea nº 37
Kale Zahar Auzoa

ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
629 272 859
943 361 380
BORDA-BERRI 5,baxua USURBIL